



Berrien buletina

AGOIZKO UDALA

www.aoiz.es – www.facebook.com/ayuntamientoaoiz

6. zenb.-2017ko uztaila
EKAINENKO LABURPENA

2016ko kontuak onartu ditu udalak

Joan den ekainaren 7an egindako osoko bilkuran, 2016ko kontuen itxiera onartu zuen udalak; horien barruan sartzen dira udalerrienak diren Kanpandoa sozietate publikoa eta Musika Eskolako Patronatua erakundeen kontuak.

Sarrera-gastuen balantzeak 29.297 euroko saldo negatiboa utzi du. 2.783.004,50 euro izan dira sarretan, eta 2.812.301,27 euroko gastuak, arestian aipatu hiru hankak batuta.

Ekitaldia modu negatiboan itxi badugu ere, udal-kontuen balorazio positiboa egiten du udalak. 2011n, 501.000 euroko saldo negatiboa zuten kontuak eta, beraz, bost urtean 472.000 euroan murriztu da desoreka ekonomikoa.

2015ean, kontuak modu positiboan itxi ziren, eskaturiko 400.000 euroko maileguari esker. Kontuen handitze ezohiko hori deskonta-

tuta, iazko itxiera 102.000 euro negatibokoa izan zen, eta, beraz, urtebetean, 73.000 euroan murriztu da udal-defizita.

Udalaren kontuak apurka-apurka oreka lortzeko bidean daudela esan daiteke, eta norabide horretan jarraitu beharko dugu lanean, azken sei urteotan bezala.

Diruzaintzako gerakinari dagokionez, positiboa izaten jarraitzen du, 89.463,42 eurokoa, zehazki. Datu garrantzitsua da hori, izan ere, udalari aurrekontu-moldaketak

egiteko aukera ematen dio, premia-zko beharrak edo azken ordukoak sortuz gero. Noski, horrelakorik ezin izango litzateke egin gerakina negatiboa balitz.

Udalaren zor biziak ere beheranzko joeran jarraitzen du. 2016an, indarrean ditugun hiru maileguetako 176.563,87 euro amortizatu dira, orotara: epaitegiko etxea, zentro hidrotermala eta aurreko legealdian Nafarroako Gobernua-ren eta Itoiz Fundazioaren ordaingabeko konpromisoai aurre egiteko 2015ean eskatutako mailegua.



2016ko abenduaren 31n, 824.000 eurokoa zen udalaren zor bizia: 2015eko 400.000 euroko maile-gua gorabehera, 2011n udalera iritsi ginenean aurkitutako zor bizia baino 46.000 euro gutxiago.

Hobekuntza ekonomikoa izanik ere, udalak zailtasunak ditu oraindik, ordainketei aurre egiteko likidezia eskasiaren ondorioz, eta atzerapen garrantzitsuak ere bai, nahiz eta murrizten ari diren.

Arlo horretan lan handia dugun

arren, 2017ko ekainaren 7an, 35.000 euroko zorra zegoen, 2016ko gastuei zegozkienak, baina urtebete lehenago 100.000 eurokoa baino dezente handiagoa zen kopuru hori.

Gizarte-gaiei, osasunari eta berdintasunari dagozkien gastuak 149.000 eurokoak izan dira 2016an, eta horiei gehitu behar zaizkie Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen bitartez bideratu diren herritarren onurarako laguntzak eta programak. Izaga Mankomunitateak udalaz besteko

aurrekontua du horretarako.

Musika Eskolako Patronatuari 48.918,83 euroko ekarpena egin zaio, eta Kanpondoari, aldiz, 132.012,58 euro eman zaizkio; 2015ean baino 20.000 euro gutxiago, beraz.

Azken batean, ahalegin handia eginda, udalaren kontuek orekarako joera dute. 2017rako erronka izango da hobekuntza ekonomikoa horretan aurrerapausoa egitea. Horretarako ari gara lanean.

Energia aurrezteko asmo handiko proiektua aurkeztu da



Ekainaren 2an egindako ezohiko osoko bilkuran, udalak erabaki zuen energia aurrezteko asmo handiko proiektua aurkeztea Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuan (IDAE, Madriliko Gobernuaren menpekoa).

Proiektuak 963.000 euroko aurrekontua du, eta asmoa da udalerriko argiteria publikoko luminariak berritzea. Egungo argiterian, sodiozko lanparadun luminariak dira nagusi eta, beren antzinasunagatik eta ezau-garriengatik, efizientzia energetiko txikia dute; horregatik, luminariak eta ekipoak berritu behar dira, led teknologiadun eraginkorragoak jarrita.

1.086 argi-puntu berrituko lirateke, orotara, egungo kale-argien buruak aldatuta, led luminariak jartzea ahalbidetuko duten beste batzuk ipintzeko. Gainera, egungo koadro elektrikoak egokitu egingo dira, indarrean den araudia bete dezaten, eta kaleko argiteria

erregulatzeko instalazioa ipiniko da, puntuz puntu. Horri esker, instalatutako potentzia % 65era bitarte murriztu ahal izango da.

Proiektu garrantzitsu hau egin ahal izateko, IDAeri laguntza ekonomikoa eskatu zaio. % 0ko interesa duen mailegua izango litzateke, komisiorik gabekoa eta 10 urtean amortizatzea, energia-aurrezpenari esker amortizatuko baita, zor gisa zenbatu barik, aurrekontuen egonkortasunaren legearen arabera.

Nafarroako mendialdeko 13 herri aurkeztu dituzte halako proiektuak, Cederna-Garalurren aholkularitzarekin eta 2.426.000 euroko aurrekontuarekin.

Udalak urte amaieran jakingo du laguntza eman zaion ala ez. Baiezkoa balitz, proiektuaren xehetasunak herritar guztien eskura jarriko ditugu.

Hondakinen gaineko tasak, merkeago

HHS Mankomunitateak berriki ohar bat bidali du etxeetara, hondar organikoen tratamenduari dago-kion tasa %20 jaitsiko dela jakinarazteko. Jaitsiera aplikatuko zaie etxean edo herriko instalazioetan konposta egiteko inskribatuta dauden pertsoneri, edo hemendik aurrera egiten dutenei. Neurria hurrengo errezioban nozituko da, hemendik prezioa 4,40 € txikiagoa (seihileko) izanen baita. Erabaki hau zerga

Agoizko Udalak Díaz etxearen erdiaren jabe egin da

Pasa den ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran Agoizko Udalak onetsi zituen Díaz etxearen erdia eskuratzeko egiteko baldintza ekonomiko-administratiboan pleguak. Erositakoa Fermín Idoate iruindarraren esku zegoen.

Bi aldeek hitzartutakoaren arabera, udalak 13.000 euro emanen dizkio bere parte erosteagatik. Lur-zatiaren beste erdia, Residencial Casa Díaz S.L enpresaren esku dago gaur egun.

Fermín Idoatek 48.000 euroko zorra egina zuen udalarekin, Trinkete kalea irekitzeko egindako lanengatik eta orubearen barrualdean jarri behar izandako aldarmioengatik. Neurri horiek udalak subsidiarioki exekutatu zituen 2013ko ekainean. Hau da, Díaz etxearen jabe mugikortasuna, segurtasuna eta osasunarekin lotutako arrazoiengatik egin beharrekoen gastuak onartu behar zutela informatu eta horiek errefuxatu ondoren, udalak lanei ekin zien, eta aurreratzen joan da horren ondoriozko gastuak. Ondoren lurraren jabe eskatu zien kopuru horiek ordaintzea.

Fermín Idoaterekin ailegatutako akordioaren arabera, horrek sortutako zorra kitatu beharko du (berriki 15.000 aurreratu ditu), eta dokumentua sinatzen den momentuan gelditzen dena ordaindu beharko du. Udalak kopuru hori jasotzen duenean Idoate jaunari ordainduko dizkio jabetzaren %50agatik adostutako 13.000 euroak. Udalaren ustez, Díaz etxea azken urteetan sortu duen arazoari irtenbidea emateko modurik hoberena da horren jabe egitea. Lehen urrats bat eman zen kalea irekitzeko erabakia hartu zuenean, eta orain udalak izan nahi du orube osoaren jabea, herri osoaren eskura jartzeko.

arautegi berriari jarraikiz hartu da, bertako printzipioa baita "kutsatzen duenak ordaindu behar duela". Mankomunitateak adierazi du jaitsiera birziklatzen jarraitzeko akuilu ekonomikoa dela, ingurune eta herritartasunaren ikuspegitik oso ekintza positiboaz gain. Informazio gehiago nahi izanez gero, helbide honetan aurkituko duzue: www.mancomunidad-irati.es



GAINERAKO %50a Residencial Casa Díaz S.L.-ri dago-kio. Elkarte horrek auzitegietan errekurritu zuen udalak subsidiarioki exekutututakoaren kopurua, eta, une honetan, epaia ez da oraindik ezagutzera eman.

Gogoratu behar dugu Juan Carlos Riezuk bere esku duela Residencial Casa Díaz enpresaren partaidetzarik handiena. Fiskaltzak 11,5 urteko kartzela zigorra eskatu dio Riezuri eta 6,3 milioi euroko isuna, beste arrazoi batzuen artean, «enkanteak faltsutzeagatik». Antza denez, Gizarte Segurantzako Bilketa Exekutiboko Unitateko burua zen garaian, berankorrei kobratzen zinez, banku-etxetako kontuak eta ondasun higiezinak bahitzea egokitzen zitzaion. Fiskaltzaren salaketaren arabera, ondasunak bahitutakoan enkante publikoan esleitzen zitzaion harekin negozio komunak zituzten pertsoneri, eta operazio horiekin etekin ateratzen zituen. Riezu Díaz etxearen jabetzaren erdiarekin egin zen, ostalari batek Gizarte Segurantzarekin zuen zorra kitatzeko eraikinarekin ordaindu behar izan zuenean.

Bi urteko legegintzaldiaren balantzea

Pasa den ekainaren 30ean, legegintzaldi honek bi urte egin berri zituela, balantzea egiteko ekitaldia antolatu zuen udalak. Bertan, udal korporazioak orain arte burututako proiektuen balorazioa egin zuen, eta legegintzaldiko bigarren partean exekutatzeko aurrikusita dituen ideien berri eman zuen.

Aitziber Ugalde zinegotziak hasiera eman zion ekitaldiari eta berak ere hitza eman zien udal ordezkariari. Banan banan, xehe xehe azaldu zituzten bakoitzaren arloan egindako jarduerak guztiak.

Zinegotziek ogasun, kirola, turismo, hirigintza, berdintasuna, hezkuntza, euskara eta abarren inguruan emandako azalpen guztiak irudikatuzko argazkiak eta hebideteetako berriak erabili ziren.

Alkateak parte hartu zuen ekitaldian ez zeuden zinegotzien gaiei buruzko informazioa emateko.

Alkateak ere bukaera eman zion topaketari, aurki eginen diren jardueren berri ematen.



Aoiz pone en marcha una 'app' municipal y un foro en la web

Quienes se descarguen la aplicación en su móvil podrán recibir bandos y tener acceso a información local de actualizar la página web, las redes sociales y, desde ahora, la nueva 'app'.

Ya es posible descargar la aplicación gratuitamente desde Google Play o App Store con sólo buscar la palabra Aoiz, y también desde la dirección <http://aoiz.app-ayuntamientos.es/>. Aparte de teléfonos de interés, actos culturales, información turística, etc., destaca el apartado de bandos municipales (saltarán avisos en el móvil) y la posibilidad de informar de incidencias. Puede emplearse en castellano o euskera.

En el caso del foro web, ya es posible registrarse en la dirección <http://www.aoiz.es/general/foro/> y proponer o participar en debates, aportando ideas y sugerencias.

exposición EL IRATI S.A. erakusketa

Maquetas • Paneles • Fotografías • Piezas expositivas • Documentales
Maketak • Panelak • Argazkiak • Objektuak • Dokumentalak

del 22 de septiembre al 14 de octubre
mañanas 10h - tardes 16h

Anchieta, arte en Navarra
Nafarroaren artea

Aoiz presupuesta 2,23 millones y modestas inversiones para este año

Se prevén 26.500 euros para la segunda fase de renovación de ventanas del colegio e instituto como principal obra.

También se seguirá mejorando la señalización y se podrá adosar como jubilación un edificio de viviendas.

El presupuesto del Ayuntamiento de Aoiz para 2017, al igual que la ejecución de otros líneas de inversión, sigue siendo "cuadrado y positivo" y presenta una parte de inversión de 2,23 millones de euros. De los 2,23 millones de euros que se otorgan, apenas 600.000 euros se destinan a acometer proyectos de inversión, y en su mayoría se destinan a la ejecución de subvenciones. "Para algunos de los proyectos que se ejecutaron en los últimos años, como el edificio de viviendas, el colegio e instituto, Udal-Lake (331.000 euros). En concreto, el presupuesto



Cierre de cuentas en positivo

El cierre de las cuentas de 2017 ha resultado ser bastante positivo para el Ayuntamiento de Aoiz. Tras el ejercicio de 2016, el Ayuntamiento de Aoiz tiene ahora una posición más sólida que en años anteriores, con un superávit de 300.000 euros. Este resultado se debe a la gestión eficiente de los recursos y a la ejecución de proyectos de inversión que han generado ingresos adicionales.

Eskaintza turistiko berria: autokarabanetarako gunea



Agoitzek beste baliabide turistikoa du Beragitoa inguruan, Irati ibaiaren uhateetatik hurbil: autokarabanetarako gunea, 9 lekurekin. Udalak sustatuta, Tokiko Agenda 21en baitan, Tximeleta Autokarabana Turismo Elkarte Nafarraren aholkularitza izan dugu esparrua antolatzeko.

Guneak edateko ur iturria du, baita urak (beltzak zein grisak) bete eta husteko doako zerbitzua ere. Eremua berdez inguratuta dago, eta ikuspegi zoragarriak ditu, Irati ibaitik eta horren interpretazio-bidetik 30 metro eskasera. Ibaiare-

kiko bide paralelo horretan, Iratiko lantegi zaharrarekin egingo dugu topo, Zerrategiko Auzoan, baita herriaren inguru natural eta paisajistikoko beste gune batzuekin ere, hala nola, San Roman basiliza, elurtegia, Iratiko behatokia, errota zaharra... Ibilbidea Agoizko zubian amaituko dugu.

Inaugurazio-ekitaldia herriko trikiti-taldeak alaitu zuen, eta bertan izan ziren, Agoizko herritarrak ez ezik, Tximeleta elkartearen zenbait kide ere. Carmen Cosín turismo-zinegotziak, beste zenbait udal-ordezkarirekin batera,

ongietorria egin zuen, eta eskerak eman zizkien bertaratutakoei zein proiektua ahalbidetu duten guztiei. Zintaren mozketa eta Udalaren eta Tximeleta elkartearen arteko plaka eta oroigarrien elkar-trukearen ondoren, mokatutxo bat egiteko aukera izan zen; eguraldi txarrak baina, ekitaldia pilotalekuko arkupeetara mugitzera bultzatu zituen. Handik, San Migel elizarantz joan ziren, erai-kinaren, bataiarriaren eta Juan de Anchieta erretaularen argi eta soinudun bisita gidatua ikustera. Fronton tabernan egindako bazkariarekin amaitu zuten eguna.

Udalbatza txikiaren osoko bilkura

Aurten, udalbatza txikiaren hautaketa eta udal-zereginetako parte-hartzea ez da mugatuko soilik jaietako ekitaldietara; horren ordez, gurekin izan ditugu Olenzerori eta Errege Magoei eginiko ongietorrietan, baita Zaindu Agoitz kontzientziazio-kanpainan ere (herriko elkarbizitza onerako herritarren bost konpromiso sustatu zituen udalak). Gainera, urtero errepikatuko den berrikuntza garrantzitsu gisa, udalaren osoko bilkura egin berri dute, eta bertan eskaerak egin eta herriarekiko konpromisoak hartu zituzten.

Osoko bilkura modu sinbolikoan hasi zen, egungo udalbatzako kideak beren ohiko eserlekuetan zeudela.

Unai Lako alkatearen hitzak entzun ondoren, txikiakiko poza eta esker ona adierazteko, haiak eseri ziren aretoko eserlekuetan. Arxel Gonzalez alkate txikiak eman zion hasiera saioari, idazkaria akta jasotzen ari zela, eta, hitz batzuk esan ondoren, gainerako zinegotzietan eman zion hitza: banan-banan azaldu zituzten beren eskaerak eta konpromisoak. Gehienak aisialdirako proposamenak izan ziren, baina bestelakoak ere egon ziren, herrirako hobekuntzak eta konpromiso sozialak, esaterako.

Udalbatza-aretoa hurrez beteta egon zen, eta adi-adi jarraitu zuten ezohiko saioa.



ESKAERAK:

- Tirolina txiki bat jartzea.
- Ur-parke txiki bat jartzea.
- San Migel berria egokitzea, belar artifizialarekin, eta eskolako atletismo-pista egiteko edota eskola handitzeko erabiltzea.
- Kale berria oinezkoentzat egokitzea, asteburuetan, behintzat.
- Udalaren eta Epaitegiaren arteko bihurgunean ispi-lua jartzea.
- Eskubaloi- eta igeriketa-taldeak ekipamenduz hornitzea: kirol-jertseak, txandalak...
- Txakurrentzako gunea egokitzea.
- Kanpondoan gutxien erabiltzen den belardian, mini-golf bat eta kulunkak jartzea.
- Eskolan, bizikletak aparkatzeko tokia jartzea (baita eskolara joateko bidegorria egitea ere).
- Skate-gunea egitea.
- Oinezkoentzako pasabideak margotzea, leku arris-kutsu eta jendetsuetan.

KONPROMISOAK:

- AGOITZ ZAINDU kanpainarekin bat egitea.
- Kirol-instalazioak, futbol-zelaia eta igerilekuak zaintzea.
- Txikienek erabiltzen dituzten gunek garbitzeko auzolana antolatzea.
- Berdeguneetan, erabilera txarrak adieraztea, txakur-kakak jasotzen ez direnean.
- Zaborrari eta txakurkari kakei argazkiak ateratzea, zabaltzeko eta kontzientziatzeko.
- Mendi-irteera antolatzea, mendietan eta bideetan geratzen diren kartutxoak biltzeko.
- Udako gauei dagokienez, leku jendetsuetan kartelak jartzea, errespetua eskatzeko, eserlekuei, pape-rontziei, bizilagunei... dagokienez.
- Eskola-ikasleak zentroko komunak, instalazioak eta altzariak errespetatzera eta zaintzera gonbidatzea. Eskolan bertan kanpainak egitea.
- Agoizko bidea egiten duen enpresari eskaera egitea autobusa markesinaren ondoan duen lekuan gerdadin, oinezkoen ikusgaitasuna oztopatzen baitu.

Hobekuntzak, 0-3 urte bitartekoentzako zentroan

Azken egunotan udal langileek zenbait hobekuntza egin dituzte 0-3 urtekoentzako zentroan eta haren inguruan. Kanpoaldean, esaterako, iturri bat egin da, zutabeak konpondu eta kolorez margotu dira eta burdinazko ateak eta zutabeak itxura berria dute lixatu eta margotu ondoren.

Barnealdean ere hobekuntza

xumeak egin dira: sartzeko ateak konpondu dira, zenbait baldosa aldatu, lehiotako pertsianak eta eskutokiak konpondu eta instalazioak hobetzeko beste zenbait lan xume gehiago.

Oraindik egin beharreko obra batzuk gelditzen dira, udan zehar bukatuko direnak.




#metachodemacho / Gizonkeriatik gizontasunera Mugimenduarekin bat egin du agoitzek

Agoizko Udalak osoko bilkuran onartu berri du berdintasunaren aldeko alkateen manifestuarekin bat egitea. #metachodemacho mugimenduaz ari gara (gizonkeriatik gizontasunera), benetako jendarte berdinzalea lortu nahi duena, indarkeria matxistarik gabea.

Horretarako, udalbatzak konpromisoa hartu du bere esku dagoen guztia egiteko maskulinitate osungarri eta berdinzaleei buruzko hausnarketa-guneak sustatzeko, jokabide matxistak saihesteko gizonzkoen bideratutako lana sendotzeaz eta jendarte berdinzalearen oinarriak ezartzen dituzten balioak sustatzeaz batera.

Ideia hori Acción Contra la Trata- ACTren ekimena da: Nafarroan sortutako irabazi asmorik gabeko elkarte da ACT, pertsonen salerosketaren aurka borrokatzea helburu. #metachodemacho/Gizonkeriatik gizontasunera kanpainan, saltzen dizkiguten balioak (kontsumoa, berehalakotasuna, nagusitasuna, lehiakortasuna eta oldarkortasuna) eraitsiko dituen bestelako maskulinitate-eredu baten aldeko apustua egiten da. Hala, pertsona guztion arteko gizarte berdinzalea lortu nahi da, pertsona guztiak bilduko dituen eta nork bere gaitasunak garatzeko baldintza-berdintasuna izango duena.

Agoizko udalak argi eta ozen dio: #metachodemacho/Gizonkeriatik gizontasunera.



Eta jaietan... zer? kanpainarekiko atxikimendua

Beste urte batez Agoizko Udalak atxikimendua adierazi dio Berdintasunerako Nafar Institutuak abiatutako «Eta jaietan... zer?» kanpainari. Horren helburua da bereziki uda zehar Nafarroako herri guztietan aragotzen diren sexu erasoei eta emakumeek pairatzen duten jazarpenari buruzko kontzientziakoa piztea herritarrengan, egun horietan errazago uzten baita horrelako portaerak agertzea. Horregatik, kanpainak helburu hauek ditu: sexu erasoak galaraztea, gizonzkoak eta emakumeak jaietan parte har dezaten berdintasunean; emakumeen parte hartzea ikustaraztea; erasoak errefusatzeko jarrerak bultzatzea, emakume zein gizonzkoen artean.

Horretarako, Agoizko Udalak, herriko gizarte entitate eta elkarteekin batera, zenbait ekintza eginen dituzte, guztiek mezu bera helaraz dezagun: «Ez da EZETZ». Udalak uste du oso garrantzitsua dela herri-tar guztiak inplikatzeko, hala nola gizarteak erantzuten jakitea eraso sexistak gertatzen direnean. Honako ekintza hauek eginen dira:

- *Eta jaietan...zer? Y en fiestas...¿qué?* iragarkia
- Esku gorriko txapak banatzea
- Jarduera protokoloa ezagutaraztea: zer egin eraso sexista pairatzen edo ikusten duzunean
- Hitzaldi tailerra: "Abestien azterketa, genero ikuspegitik"

Ehun urteko bi herritar gehiago

Mende bateko bizitza ospatu beri dute Agoizko bi emakumeek. Joan den martxoaren 28an Teresa Etulain Orriok eta maiatzaren 30ean Emilia Iriarte Huartek 100 urte bete zituzten. Senideek lagunduta, Udalaren eta Erretiratuen eta Alargunen Elkartearen bisita jaso zuten zaharren egoitzan, emakumeekin batera bizi izan nahi baitzuten halako egun berezia. Gainera, bi ororigarri eman zizkieten opari. Gozamina izan da, Teresa eta Emilia! Urte askotarako!



Udal musika eskolako jarduerak

Pasa den ekainean zehar, Udal Musika Eskolak bi ekitaldi antolatu zituen kultur etxeko entzutegian.

Alde batetik "Musikal bat eginen al dugu?" ikasgaiko ikasleek *Aladdin* obra egin zuten, Héctor Ramírez irakaslearen zuzendaritzapean. Musikala musika eskolako ikasgai horren ikasleek prestatu dute, bere familiakoen laguntzarekin. Lerro hauetatik, gure esker ona parte hartu duten guztiei.

Gainera, ikasturteari bukaera emateko, kontzertu

dibertigarri bat antolatu zen kultur etxeko entzutegian. Udal Musika Eskolako ikasleek Disney-ko filmik ospetsuenetako abestiak interpretatu zituzten.

Nabarmenezkoa da datorren ikasturterako egingandako matrikulen igoera, izan ere 85 matriluka egin dira, eta oraindik gehiago izan daitezke, abuztuaren bukaeran egiteko aukera izanen baita. Gehien eskatutako instrumentuak honako hauek dira: gitarra, tronpeteta eta perkusioa, eta horien ondoren, txistua eta zeharkako txirula.

Jaietako azken ukituak

Alfredo León Mañú sinatutakoa da, aurten ere, jaiak iragartzeko kartel irabazlea. Bozketa lehiatua izan da, jaietako irudia aukeratzeko aurkeztutako hiru hautagaien artean; baina azkenean balantza Alfredoren alde jarri da. «Agoit-Zen» kartelaren izena, eta kolore anitzeko zezen-suzko baten irudia agertzen du. Egileak dioenez, zezen-suzkoa ez da inoiz izan jaietako karteletako gaia, eta, gainera, oso erakargarria egiten zaie haur guztiei, zezenaren ibilbidean jarraitzaileak pilatzen direlako.

Agoizko Dantzariak eta Txistulariak aukeratu dira datorren abuztuaren 12an Agoizko jaietako hasiera emateko txupinazoa jaurtikitzeko.

Aukeraketa Kulturgunea foroak proposatu eta Agoizko Udalak antolatutako partaidetza prozesuaren bidez egin da. Bertan herriko 110 bizilagunek parte hartu dute.

Bi izan dira herritarrek aukeratzeko izan dituzten kandidaturak: Agoizko Dantzariak eta Txistulariak, Agoizko kulturaren alde egindako ibilbide luze eta ekarpen garrantzitsuagatik eta San Migel IP eta DBHI (oraingo eraikina 40 urte egiten ditu), Agoitzen, hezkuntza arloan, egindako lanagatik. Hautagaiek 65 eta 45 boto lotu dituzte hurrenez hurren.

Zorionak Agoizko Dantzari eta Txistulariei!

Ekainean egindako kultur ekitaldien balantzea

Agoitzek DNA Transoceánica ikuskizunaren aurre-estreinaldia jasotzeko aukera izan zuen. Koreografia eta argazkilaritza uztartzen dituen muntaia da, inguratzen gaituen espazioaz hitz egiten diguna.

Horretaz gain, urtero bezala, Orreagako erromeria egin zen. Ekainaren 11n, igandearekin, Auriztik abiatu ziren Agoizko erromesak Orreagako Ama Birjina ohoratzen.

Bestalde, DBH-ko 4. mailako ikasleek kultur etxeko entzutegian jaso zituzten Agoitzen burututako

zirkulo agiriak.

Eszenatoki berean banatu ziren Francisco Javier Oyarzun bekak. Laguntza horiek Nafarroan bizi diren 30 urtetik beherako gazteei zuzenduta daude, eta aurtengoa VIII. Edizioa izan da.

Patxi Irurzun kazetari eta idazlea Agoitzera hurbildu zen, «De igual a igual» liburua aurkeztuta. Obra horretan París 365 jantoki solidarioen zenbait erabiltzaile batzuen historia kontatzen da.

Mariano García Musika Bandak leku bat egin zuen bere agendan, kontzertu desberdin bat eskaintzeko. Eta berriz ere gozarazi zien kultur etxeko entzutegira taldea entzuteragertu zen publiko guztiari.

Ekainari bukaera emateko, Merkaturako plazan, Ortzadar Dantza Plaza gauzatu zen. Ideia eder horri esker, belaunaldi desberdineko partaideak atera ziren gure folkloreak dantzariak ezagunenak dantzatzera.

Agoizko II. Mendi Lasterketa

Datorren urriaren 8an, Agoizko Mendi Lasterketaren bigarren edizioa izango da herrian, eta iazko arrakasta errepikatzea espero dugu. Oraingoan, lasterketa puntuagarria izango da Mendi Lasterketen Nafarroako Txapelketarako (FNDME 2017), eta bildutako diru guztia HELP-NA elkarteari emango zaio (Nafarroako Suhiltzaile eta Boluntarioen elkartea, laguntzarako eta larrialdi humanitarioetarako).

Eskerrik asko ekitaldi hau egiteko laguntza eta babesa eman dizkiguzuen guztioi.



Kanpondoko barrutian errelekuak erabiltzeko arautegia

Kanpooda udal kirol guneak, kirol instalazioak hobetzeko betiko ahaleginari jarraikiz, igerilekuetako barrutian dauden errelekuak erabilera egokia arautu du. Bertan zehaztu dira ondoren zerrendatzen diren arauak. Arauetan adierazitakoaren moduan, instalazioak desegoki erabiltzen edo arauak betetzen ez badira, ezingo dira erreleku horiek hurrengo bi asteetan erabili.

1. Guneko harrera lekuan eskatuko da errelekuak erabiltzeko baimena, gehienez ere 24 ordu lehenago. Errelekuak eskatuta baldin badaude, itxaron zerrenda osatuko da.

2. Erreserbak denbora tartearan arabera eginen dira: hamaiketakoak, bazkaria eta afaria, alegia, 10:00etatik, 13:00etatik eta 19:00etatik aurrera, eta bertan egon ahalko da, gehienez ere, 23:00ak arte (tabernan barna atera beharko da). Edozein modutan, ezingo da sua piztuta eduki 22:00etik aurrera.

3. Instalazioak garbi-garbiak utziko dira. Eragindako hondarrak dagozkien edukiontzira botako dira. Arretaz ibiltzea eskatzen da, gantza lurrera eror ez dadin.

4. Instalazioak egoki erabili behar dira, eta txukun eta erabiltzeko moduan utzi behar dira.

5. Erabiltzaileak eraman beharko ditu xirmenduak, egurrak, kartoiak edo egunkariak.

6. Arau hauek betetzen ez dituenak ezingo ditu instalazioak erabili hurrengo bi asteetan.

7. Eskatzailea izanen da instalazioak egoki ez erabiltzeagatik eragin litezkeen kalteen erantzulea.

8. Gomendatzen da harraskako ura arduratsuki erabiltzea, baliabide urri hori alferrik ez botatzeko.

